27KO BELAUNALDIA

Sevilla, 1927ko abenduaren 16a. **Lagun olerkari talde bat** Gongoraren heriotzaren 300 urteak ospatzeko bildu da, eta horrela sortu zen 27ko belaunaldia. Talde horren bereizgarriak ziren, besteak beste, haren **indar sortzaile handia**, une hartan nazioartean ziren mugimendurik garrantzitsuenekin zuen harremana, eta **beste arte batzuekin zituen loturak**. Belaunaldi horrek izan zuen garrantzirik handiena Espainiako literaturan, Urrezko Mendearen ondoren, eta **itzelezko eragina izan** zuen garaiko **bizitza kultural, politiko eta sozialean** eta ondorengo belaunaldietan.



27ko Belaunaldiko argazkia Sevillako Ateneoan.
Irudia 27ko Belaunaldiaren ikurretako bat bihurtu da, baina kanpoan utzi ditu giro literario eta kultural hartan parte hartu zuten emakumezko idazleak.

EZAUGARRIAK

Tradizioa:
27ko belaunaldiak abangoardiarik apurtzaileenak eta herri-tradizio hispanikoa batu zituen, eta **poesia tradizionalaren formak berreskuratu zituen, sentsibilitate modernoarekin berrinterpretatuta**.

- *Romancero gitano* (García Lorca) eta *Marinero en tierra* (Alberti): erromantzeen eta herri-kantutegien metrika arina eta musikala.
- *La voz en el viento* (Champourcin) eta *Cántico* (Guillén): Urrezko Mendeko sonetoak eta dezimak.
- *Isla sin tierra* (Josefina de la Torre) edo *Égloga, elegía, oda* (Luis Cernuda): erromantze tradizionala eta Urrezko Mendeko formak egokitzea abangoardiako lirika intimora.

Poesia purua:
1920ko hamarkadan, poesia purua defendatzen zuen korronte batek hartu zuen indarra. Haren jarraitzaileak **ahalegintzen ziren azalekotzat jotzen zuten guztia** (errima, estrofak, metrika eta, bereziki, poetaren egoera emozionalak) kentzen poematik, **haren esentzia besterik ez uzteko**.
Korronte horren ordezkari nagusia Juan Ramón Jiménez izan zen, eta eragin handia izan zuen 27ko belaunaldiko poeta askorengan.

Abangoardiak:
XX. mendearen hasieran, hainbat arte- eta literatura-mugimendu sortu ziren Europan eta Latinoamerikan. Mugimendu horiek bereizgarri zuten, besteak beste, **arau tradizionalekin haustea, hizkuntzarekin esperimentatzea eta egituretan berrikuntza bilatzea**, eta arte guztiz berria sortu zuten.